



MARTXOAREN 8a **8 DE MARZO**

**Emakumeak
teknologiaren sortzaile eta
erabiltzaile**

**Mujeres creadoras y
usuarias de la
tecnología**


Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

TOKUA: Informatika Fakultateko Areto Nagusia (Gipuzkoako Campusa)
EGUNA: 2014ko martxoaren 7a ORDUA: 10:30
LUGAR: Saloi de actos de la Facultad de Informática (Campus de Gipuzkoa)
Dia: 7 de marzo de 2014 HORA: 10:30

Ostiralean, martxoak 7, 10:30etan, UPV/EHUko Informatika Fakultateko Ekitaldi-aretoan (Paseo Manuel Lardizabal 1,

Donostia-San Sebastián), Euskal Herriko Unibertsitateak ekitaldi instituzional batekin ospatuko du Emakumeen Nazioarteko Eguna. Informatika Fakultateko Berdintasunerako Batzordeak antolatu duen ekitaldi honetan, master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzearen **II. María Goyri Saria** eta ikasketa feministei edo genero lkerketei buruzko tesi onenaren **I. Micaela Portilla Saria** banatuko dira.

Ekitaldian izango dira:

- **Iñaki Goirizelaia**, UPV/EHUko errektorea.
- **Maite Zelaia**, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordea.
- **Agustin Arruabarrena**, Informatika Fakultateko dekanoa.
- **Teresa Nuño**, Berdintasunerako zuzendaria.
- **Jasone Astola**, Berdintasunerako zuzendari ohia.

Sariak banatu ondoren, **bertso trama** bat antzeztuko da "*Bitetik bytera, istoriotik historiara*" izenburupean. **Maialen Lujanbio** eta **Aitor Sarriegi** arituko dira bertsotan eta **Aitzol Astigarraga** izango da gai-jartzailea. Bertso trama honek etorkizunera eramango ditu ikus-entzuleak, 2021eko martxoaren 8ra hain zuzen, UPV/EHUko emakumezko ikerlari batek, lehenbiziko aldiz, Ada Lovelace nazioarteko sari prestigiotsua irabazi duen egunera. Sariaren aitzakian, atzera begira jarriko gara ikerlariaren gaur arteko ibilbidea ezagutzeko.

Ekitaldiari amaiera emateko, "Itzaletik azalera" **erakusketa** inauguratuko da. Erakusketa hau, Informatika Fakultateko irakasle eta ikasle ohiez osatutako e-makumeak taldeak antolatu du, informatikako Ingeniaritzan emakumeek duten egoeraz informazioa biltzeko eta zabaltzeko sortutako taldea. Martxoaren 17ra bitartean izango da ikusgai erakusketa Informatika Fakultateko hallean.

Ekitaldia streaming bidez emitituko da zuzenean: <https://ehutb.ehu.eus/es/directo/1.html>

BESTE EKIMEN BATZUK

Ekitaldi instituzionalaz gain, UPV/EHUko hiru campusetan ere hainbat ekintza antolatu dira Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta:

Arabako Campusa

Martxoak 11, asteartea:

12:00etan, Gasteizko Irakasleen U.E.-ko Liburutegiko Sala Urdinean, **Telmo Esnaen** "Urte berri on, amona" filma emango da.

Bizkaiko Campusa

Martxoak 5, asteazkena:

12:00etan, Zientzia eta Teknologia Fakultateko Paraninfoaren ondoko gelan, ikastegi honetako Berdintasunerako Batzordearen **logo berria** aurkeztuko da, **Iñigo San Emeterio** eta **Iñigo Tobesen** eskutik. **Eder Ruesgarekin** batera, beraiek izan dira logoaren sortzaileak.

20:00etan, Bizkaia Aretoan, Lorquianas antzerki lana eszenaratuko da **Itziar Lazkano** aktorearen eskutik, **Iñaki Maruri** piano-jolearen zuzeneko musikarekin eta **Felipe Lozaren** zuzendaritzapean. Kulturbasquek antolatu du saioa eta sarrera librea izango da.

Martxoak 6, osteguna:

12:30etan, Leioako campuseko I Ikasgelategiko Justo Garate aretoan, "Derechos Humanos, educación de las mujeres e islam" izenburupean hitzaldia emango dute **Natalia Andujar** Educaislam Prestakuntza Zentroko eta Musulmanas Sareko zuzendariak eta **Isabel Aspe** Eurobaskeko zuzendari teknikoak. Zuzenbide Fakultateko Berdintasunaren eta Kultura batzordeek antolatu dute jardunaldi hau.

Martxoak 7, ostirala:

Egun osoan zehar, Zientzia eta Teknologia Fakultateko sarreran, Zientzien arloan azpimarragarriak diren hamar emakumeri (bi biologiak dira, bi geologoak, bi kimikariak, bi fisikariak eta bi matematikariak) eskainitako orri-markatzaileak banatuko dira.

Martxoak 10, astelehena:

10:00etan, Bilboko Irakasleen U.E.-ko Juliana Agirrezabala aretoan, "**Zergatik mutilek ez dute etxeko lanik egiten?**" eta "**Emakume artistak**" gaien inguruan ikastegiko ikasleek egindako **lanak** aurkeztuko dira.

11:30etan, Bilboko Irakasleen U.E.-ko Juliana Agirrezabala aretoan, **Matxalen Legarreta** UPV/EHUko soziologoak **hitzaldia** emango du "**Usos del tiempo entre mujeres y hombres**" izenburupean.

Martxoak 12, asteazkena:

17:00etan, Bizkaia Aretoan, "**Abortuaren erreforma**" aztertuko dute sakonean eztabaida batean **Iñaki Lasagabaster** UPV/EHU

Zuzenbide Fakultateko katedradunak, **Jon Mirena Landa** UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko katedradunak eta **M^a Luisa Cuerda Arnau** Alacanteko Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Katedradunak. Ondoren, **19:00etan**, **mahai inguru bat** burutuko da **Anabel Sanz** Basauriko Udaleko Berdintasunerako Teknikariaren, **María Viadero** Mugarik Gabeko kidearen eta **Miren Ortubay** UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko irakaslearen parte hartzearekin. Kulturbasquek antolatu du ekitaldi hau..

Martxoak 19, asteazkena:

11:00etan, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko entzunaretoan, "**Sareginak/Mujeres conectadas**" ekimena burutuko da. **Pikara Magazine** aldizkariaren sortzaileek eta **Ruth Sala** abokatuak aldizkari digitalaren arrakastaren arrazoia azalduko dute eta jasaten dituzten ziber-erasoak aipatuko dituzte. **Lucía Martínez Odriozola**, **Andrea Momoitio** eta **Ruth Sala** eremu digitaletan ematen den genero indarkeriaren egoera juridikoaz mintzatuko dira. Kulturbasquek antolatu du ekitaldi hau.

Gipuzkoako Campusa

Martxoak 5, asteazkena:

12:30etan, Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoan, **bideo-foruma "Comprar, tirar, comprar"** izenburupean.

14:30etan, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 1.1 gelan, **Jardunaldi Feministak** hasiko dira **Josebe Iturriozek** emango duen "**Patriarkatuaren historia**" hitzaldiarekin.

Martxoak 15era arte:

Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoan, "**Astronomia emakume**" **erakusketa** ikusgai, izarren bidearen amaierako kosmosaren ikuspegia.

partekatzea